



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Alegazioen Ebazpena eta AI 03 Jarduketa Integratuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren behin betiko onarpena.

Basauriko (Bizkaia) N. Elizateko Udalak, 2024ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa: José Barcia Francisco jaunak AI 03 Jarduketa Integratuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) hasierako onespeneren dokumentua jendaurrean jartzeko epean aurkeztutako alegazioa ezestea, azalpen-zatian adierazitako arrazoiengatik.

Bigarrena: AI 03 Jarduketa Integratuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia (HAPB) behin betiko onartzea, Coordinadora de Recursos Empresariales Ariz, S.L.k aurkeztua (IFK: B95161352).

Hirugarrena: Era berean, adierazi behar da bere garaian bete beharko direla 2024ko maiatzaren 20ko Ingurumen Txosten Estrategikoan (JEZ) jasotako baldintzak, ingurumen-dokumentu estrategiko berrian jada jasota daudenak.

Laugarrena: Bigarren puntuan aipatzen den Hiri Antolamenduko Plan Berezia Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea, argitaratu aurretik Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gorde dezan.

Bostgarrena: Plana indarrean sartzeari dagokionez, erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaian zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea, indarrean dagoen araudiaren arabera, eta 2024ko maiatzaren 20ko Ebazpena, AI 03 Jarduketa Integratuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) ingurumen-txosten estrategikoa formulatzen duena, 2024ko ekainaren 11ko EHAAren eta Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratu dela adieraztea.

Seigarrena: Erabaki honen edukia interesdunei jakinaraztea.

Ebazpen honekin ados ez bazaude, honako errekurtsio hauek jarri ahal izango dituzu

ERREKURTSOAK:

Horren berri ematen dizut, jakinaren gainean egon zaitezten eta dagozkion ondorioak izan ditzan. Halaber, jakinarazten dizut administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen horren aurka (apirilaren 2ko 7/85 Legearen 52.2 artikulua) administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezakezula Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikulua).

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri aurretik, jakinarazten zaizun ebazpenaren aurka berraztertze-ko errekurtsioa jarri ahal izango duzu ebazpena eman zuen organo berean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita (urtarrilaren 13ko 4/99 Legearen 116. eta 117. artikulua).

Basaurin, 2024ko abenduaren 2an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren